Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (**DSBE**) prestazio **subsidiarioa** da, eta, hala badagokio, legokizukeen edozein motatako baliabide eta prestazio ekonomikoren **osagarria**, hala nola Bizitzeko Gutxieneko diru-Sarrerarena (**BGDS**).

**DSBEa jasotzen egon zarenean BGDSren ordainketan atzerapenak aitortu bazaizkizu**, horrek esan nahi du ezarritakoa baino kopuru handiagoak kobratu dituzula, eta, beraz, itzuli beharreko zor bat sortu da. Lanbidek zor hori konpentsa dezake BGDSren atzerapenak atxikiz, horretarako baimena ematen badiguzu.

**BAIMENA ematen al diozu Lanbideri BGDSren atzerapenak atxikitzeko DSBE/EPOan sortutako zorra konpentsatzeko?**

☐ **BAI**

Prozedura hau baimentzen baduzu, **ez duzu ezer itzuli beharko**, zure zorra ordainduta geratuko baita kobratu behar zenituen BGDSaren atzerapenekin.

☐ **EZ**

Itzulketa-prozedura berezi hori aplikatzea **baimentzen ez baduzu**, eta ordainketa-gutun bidezko borondatezko ordainketa egin ezean, honako **zenbateko hauek kenduko zaizkizu**:

-**DSBE**aren zorran (1):

Zor osoa **gehienez urtebeteko epean** itzultzea ahalbidetzen duen zenbatekoa. Zorra ezin bada itzuli ezarritako urtebeteko epean, deskontua **aitortutako hileko zenbateko**ra egokituko da.

-**EPO**aren zorran (2):

- Zorra zure bizikidetza-unitateari dagokion gehieneko errenta bermatuaren % 150etik beherakoa bada, **hilero** gehieneko errenta bermatuaren **% 20ko deskontua egingo da, gehienez**.
- Zorra zure bizikidetza-unitateari dagokion gehieneko errenta bermatuaren % 150ekoa edo hortik gorakoa eta % 200etik beherakoa, gehieneko errenta bermatuaren **% 25 deskontatuko da, gehienez, hilero.**
- Zorra zure bizikidetza-unitateari dagokion gehieneko errenta bermatuaren % 200ekoa edo hortik gorakoa bada eta % 300etik beherakoa, gehieneko errenta bermatuaren **% 30 deskontatuko da, gehienez, hilero.**
- Zorra zure bizikidetza-unitateari dagokion gehieneko errenta bermatuaren % 300ekoa edo hortik gorakoa bada, **hilero** gehieneko errenta bermatuaren **% 35 deskontatuko da, gehienez.**

Zure EPOaren zenbatekoak ez badu aukerarik ematen aurreko atalean aurreikusitako deskontuak egiteko deskontua kontuan izan **aitortutako hileko zenbateko**ra egokituko dela.

Era berean, deskontu horiek gehienez ere **bost urteko epean** zorra kitatzen uzten ez badute, deskontuen zenbatekoa handitu egingo da epe horren barruan itzultzeko behar den zenbatekoan.

**BGDSko bizikidetza-unitatea osatzen duten adin nagusiko pertsonen datuak eta sinadura:**

| NAN/AIZ/Pasaportea | Abizenak eta izena | Sinadura |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

**Data:**

____________________________ (e)n, 20____(e)ko _________________aren______(e)(a)n.

**(1)**: DSBEari buruzko 173/2023 Dekretuaren 146. artikulua.

**(2):** DSBEari buruzko 173/2023 Dekretuaren 54.artikulua.